

# GUaiXE.eUS



Liburua argitaratzeko crowdfundinga



Kultura >> 14

Sakandarren %6,73 kontzejubatean bizi da; 20.504tik 1.381. Arakilen populazioa mantenduen bitartean Ergoienan jaitsi egin da



Sakanerria >> 7

## Irurtzunen karparen alde egin dute

Karpak 104 boto jaso zituen; 67 zubia konpontzeak; 65 igerilekurako sarbideak eta 64 gimnasioak.

Irurtzundarrek karparen ezaugarriak, kokapena, erabilera... zehaztuko dute.

Horretarako, bihar batzarra egingen da, eguerdiko 12:00etan udaletxeko batzar gelan.

>> 6



### Euskaltzaleak,

### bihar Donostiara

>> 5

### Martxoaren 29an Altsasuko festei buruzko galdeketa

Galdera 22ko batzarrean adostuko da

>> 9

### Ikasleen euskara erabilera sustatzen

>> 5

### Sakanako Gure Esku Dago bihar aurkeztuko da

>> 7



### Irristalari onenak bihar ere Olaztin

>> 13



### Maria Markotegi sormen saria

>> 14



### Axioren dokumentala, aurreko urratsa

>> 9



### Lakuntza eta Lazkoz aurrera txapelketan

>> 15

# ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromazurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Agueda Maiza Erdozia**  
ZORIONAK zure 92. urtebetetzean, asko maite zaitugu.



**Izai ZORIONAK** familia osoaren partez, zure 10. urtebetetzean!! Muxu asko.



**Aitor Arruabarrena Erdozia**  
ZORIONAK zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Oierren partez.



**Nahia Berasategi ZORIONAK** Nahia zure hirugarren urtebetetzean zure aita, ama eta ahizparen partez. Musu handi bat.



**Enara Berasategi ZORIONAK** Enara zure hirugarren urtebetetzean zure aita, ama eta ahizparen partez. Musu handi bat.



**Iraia Ongay ZORIONAK** printzesalla! Ongi pasa zure 8. urtebetetzean. Oier eta biok asko maite zaitugu.



**Nahia Miguel Goikoetxea**  
Mila zorion maitia ¡HAMAR urte beteko dituzu. Bi zenbakiekin hasiko zara, ze abiadura!!! Muxu pila zure familiaren partetik.



**Adei Lazkoz Senar**  
Gue pottokuek iyendien bi urte ingo dituu. ZORIONAK jatorra, segi guai artie be-zein alai ta maitekor. Familia denan partetik.



**Adei Lazkoz Senar**  
Lehengusu polittennai eta jatorrenai gurdikada muxu eta gurdikada zorion. Haizea eta Aitorren partetik.



**Oihan**  
Martxuban 2yen 39 urte!! ZORIONAK ta besarkada estu bet hi lauren partes!! Jo ta ke irabazi arte, eutsi goiarri!!

## otsailak-marsuak

# 27-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)



Allowance taldea ariko da larunbatean, 22:30ean Altsasuko Gaztetxean.

### Musika

**Allowance eta Dentera.** Otsailaren 28an, larunbatean, 22:30ean Altsasuko Gaztetxean.

**Harvey Keitel eta El Sr Lobo.** Otsailaren 28an, larunbatean, 23:30ean Olatzagutiko Clinker tabernan.

**Haize Berriak. Entsegua eta mezenazgo legearen azalpena.** Martxoaren 1ean, igandean, 12:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Mikel Urdangarin.** Martxoaren 1ean, igandean, 19:30ean Irurtzango kultur etxean.

### Dantza

**Flamenko gaua: Juan Ramirez eta Orai taldea.** Otsailaren 28an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Ipuin kontalaria

**Beldurrendako ipuinak.** Otsailaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Maidar Galartza.**

### Dokumentalak

**Los malos sueños de Rene Petit.** Otsailaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Esako urtegiaren handitzeaz.**

**Jostunak.** Otsailaren 28an, larunbatean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Gure Esku Dago.**

### Zinema

**Mil veces buenas noches.** Otsailaren 27an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

gunean.

**Dios mio ¿Pero qué te hemos hecho?** Otsailaren 27an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Paddington.** Martxoaren 1ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Las ovejas no pierden el tren.** Martxoaren 5ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



### Mendi irteerak

**Imozko Itzulia.** Martxoaren 1ean, igandean, Irurtzunedik. Iratxo mendi taldea.

### Bizikleta irteerak

**Urruntzura.** Martxoaren 1ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Urbasako kanpian. 55 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

**Altsasu-Irurtzun.** Otsailaren 28an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko kultur gune partetik. 69 km. **Zikloturista taldea.**

### Erakusketak

**Diruaren sexua ezkutua.** Otsailaren 23tik martxoaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik

21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Amalur Montessori haur eskola hezkuntza berrikuntza proiektuaren aurkezpena.** Otsailaren 27an, ostiralean, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Herriok erabaki. Independència per canviar-ho tot+Brigaden aurkezpena.** Otsailaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Zubiondo elkartearen. Hizlaria: Anna Gabriel (Endavant eta CUP-eko kidea). **Askapena eta Ernai.**

### Bestelakoak

**Enneco, haritzaren memoria. Aurkezpena.** Otsailaren 27an, ostiralean, 18:00etan Uharteko Arakilgo udaletxean. **Nafarroa Bizirik fundazioa.**

**Amalur Montessori haur eskola, ate irekiak.** Otsailaren 28an, larunbatean, Irurtzunen.

**Txerriboda.** Otsailaren 28an, larunbatean, Irañetan.

**Karparen ezaugarriak zehazteko batzarra.** Otsailaren 28an, larunbatean, 12:00etan Irurtzango udaletxean. **Aurrekontu Parte Hartzaileen taldea.**

**Dardo txapelketa.** Otsailaren 28an, ostiralean, larunbat arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Zorri azoka, merkatu soziala.** Martxoaren 1ean, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalpean.

### Deialdiak

**Arakildarrendako bilkura irekiak.** Otsailaren 27an, ostiralean, 19:30ean Hiriberriko balio anitzeko gelan eta otsailaren 28an, larunbatean, 11:30ean Izurdiagako Kontzejuetxean. **Arakilgo Independentiak.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.eus

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Lakuntzako bertso saioa,  
Zientzia saioa...

Esataria: *Eneida*



# GEROABAI

GUZTION NAFARROA

“Askatasunak baditu hainbat izen:  
**osasungintza, hezkuntza  
eta enplegua**”

ESKUBIDE GUZTIAK GUZTIONTZAT



**ORAIN BAI**



Zoila Berastegi

# Piztu, piztu, **piztu** telebista

**astekoa**
**barrutik  
kanpora**

## Zergatik denbora kutxak (I)

Fobia, egoera edo objektu zehatzaren aurrean agertzen den beldur neurrigabeari deitzen zaio. Baina fobia hitzak badu gaurko lerro hauetara ekarri nahiko nukkeen beste ñabardura bat: zenbait egoeren aurrean agertzen den gorroto sentimendua edota gaitzespena, hain zuzen ere.

Fobiak arrazoi desberdinengatik ager daitezke (nor bere izatearekin eta bizipenekin zerikusia izan dezaketenak). Dedukzio moduko

zereido zer litzateke beraz. Eta alde-rantziz ere posible balitz? Hau da, fobiak sortu ahalko balizkigute? Pertsona, komunitate, kultura edo herri zehatzekiko gorrotoa eta mespretxua "xiringa" batekin lez, sartuko baligute? Etxera begira jarritz gero, hemen Euskal Herrian urte askotan pairatu behar izan dugu (eta oraindik ere badira itsu batzuk hortik) euskaldun fobia. Ebrotik behera, askotan entzun behar izan ditugu kaletik pistole-

kin ez goazela ziurtatuta, harriturik geratu diren pertsonen hitzak. Orain, azken gertakari oso eginez, "islamofobia" hitza han hemen ageri da. Hau da, geure eguneroko bizitzan, harremanetan zein elkarrizketetan islamarekiko gutxiespena edota gorrotoa.

Neurri handi batean ez jakintasunak garamatza horra. Beste hein handi batean, beldurrak berak eta ziurtasun beharrak. Baina ez dira arrazoi nahikoak:

komunikabideek, interes konkretuei obeditez, ez dute edozein berri ematen, ez edozein irudi erakusten, ez edozein ordenetan. Itsu-itsu sinistu, hori da egin behar den gauza bakarra. Eta behin hori lortuta, telebista itzaltzerik. Ondoren, "terrorismoaren aurkako itun" bat sinatzea, inongo susmorik jasoko ez duen lan erraz bihurtuko da, besterik gabe. Orain islama da, bihar zer?

## hara zer dien

### Familia eta babes faktoreak

Gaurkoan ere familiaren paperearen inguruan arituko gara. Gure seme-alaben heziketan familia funtsezko esparruetako bat bezala ikusita. Jakina da, familia barruan babes faktoreak (familia giro ona, osasun ereduak, hezteko estilo indargarria eta positiboa...) sustatzea oso gomendagarria dela, gure seme-alabek gaintitu beharreko arriskuak behar bezala kudeatzeko aukerak handitzen dituztelako, onik ater daitezten.

Babes faktore hauek lehenbiziko urteetatik hasi behar dira jorratzen. Horrela, seme-alabak nerabegarora iristen direnean,

jarrera osasuntsuak izateko aukera handiagoak izango dituzte.

Hona hemen seme-alabei heldutasunera heltzen lagundu ahal dituen argibide batzuk. Hauek dira prozesuan parte hartzen duten elementu garrantzitsuenak:

Autoestimua eta autokontzeptua. Gure seme-alabengan hauek sustatzeko hona hemen zenbait irizpide: maitasuna eta ulermena eskaini; bere dohain eta akatsekin onartzea; inportanteak direla sentiaraztea; ahal dela, haiengaitasuneiegokitutako helburuen atzetik jo dezaten orientatzea; ahaleginaren garrantzia sustatu, eta ez lorpenarena, eta

erantzukizunak pixkanaka eman.

Autonomia: erantzukizunak hartzeko aukera ematea; erabakiak hartzeko uneak eta tokiak izatea; portaera eta jarrera autonomoak indartzea eta arau argi eta hitzartuak jartzea, menpekotasunean ezer ortzeko adinak segurtasuna ematen dietenak, autonomiaz jokatzea galarazi gabe.

Autokontrola: frustrazioarekiko tolerantzia lantzea txikitandik; estresa eta estutasuna erabiltzeko gaitasuna sustatzea; familiak laguntza eman dezake seme-alabek beren nahiak geroko utzi eta porrota jasaten ikas dezaten; ulertu behar dute ez dugula beti lehenbizikotik lortuko nahi duguna eta garrantzitsua dela iraupena eta jo eta ke aritzea berak nahi dituen xedeak lortzeko; gurasoek ez diegu seme-alabei nahi duten guztia berehala eman

behar, giza harremanetan ezezkoe ere badela ulertu behar baitute, eta norberarenak ez diren beste ikuspuntu batzuk ere.

Tirabirak konpontzea: seme-alaben esku uztea konpon ditzaketan arazoak, eta haien erabakien alde egitea, emaitza ona izan edo ez; konponbide egokiena aukeratzea; arazoak ohartu eta haren nondik-norakoak eta ezauzgarriak zehaztea, eta ezikusiarena eginez arazoak ez direla konpontzen erakustea seme-alabei.

Baloreak argi izatea: gurasoek argi izatea beren baloreak eta hauek egunero eta modu normalean transmititzea, familia giro egokian; kontraesanik ez izatea esan eta baloratzen denaren eta egiten denaren artean eta seme-alabek baloreak argi izan eta sendotu ditzaten bultzatzea.

**Gizarte Zerbitzuak**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutziak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

### Aldaketa gauzatzeko konpromisoak BEC-era

Aitor Karasatorre Mugurutz, Garazi Urrestarazu Zubizarreta, Mikeldi Diaz Aldama (Abian), Ainara Aiestaran Ijurko (EHBildu) eta Gurutze Rodríguez Armendariz (EHBildu)

Aldaketa politiko eta soziala mar txan dago Sakanan, Nafarroan eta Euskal Herri osoan. Urte luzez jasaten ari garen ukazio politikak ondorio larriak uzten ari da gurean.

Egoeraren gordintasunari eki-

men politikoa gure eskuetan hartuz erantzun diogu. Jakin badakigu soluzioak gu geuk eraiki behar ditugula.

Ekindiogulanari, ilusio eta gogoz beterik, gure buruarengan eta gure herrian konfiantza osoa jarritz.

Aldaketaren bidea ez da bate-re erraza izango. Euskal Herriak beti berarekin izan duen arazoia-ri indarra gehitu behar dio orain, herri oso baten aktibaziotik soilik etorriko den indarra.

Une erabakigarriak datoz Sakanan, Nafarroa eta Euskal Herri oso-ra. Erregimena hiltzorian dago;

aldaketarako aukera inoiz baino hurbilago atzematen dugu. Une honetan, oso garrantzitsua da aldaketa gauzatzeko posible egingen duen bide orri politikoa marraztea; eta bide orri hori egiteko jendarte osoaren babesarekin, indarrarekin kontatzea. EH Bildu-k bide orri komun baterako eskaintza zehatza luzatu dio euskal jendarteari: Euskal Bidea deitu dioguna, hiru oin izango dituen herri gisako eratze prozesurako proposamena. Orain erakutsi behar dugu badagoela Euskal Herrian nahikoa indar ibilbideari ekite-

ko. Ibilbide honetan, maiatzean izanen diren hauteskundeak mugarri garrantzitsua izanen dira. Eta hauteskunde horiek aldaketaren alde irabazteko, gure indar guztiak askatu behar ditugu gaurtik bertatik. Horregatik deialdi berezia luzatu nahi dizuegu sakandar guztioi martxoaren 7an Barakaldoko BEC-en EHBilduk egingen duen nazio ekitaldian parte hartzeko. Autobusak aterako dira Sakanatik, animatu BEC lehertuko dugu, aldaketa geldiezina egingen dugu!!  
Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Larrezabal, denboraren kutxa**

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.net](mailto:kirolak@guaixe.net)  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitate@guaixe.net](mailto:publizitate@guaixe.net)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Felix Alzelai  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburordetza

**EMAKUMEEN AFARIA IRURTZUNEN:** Emakumearen Jardunaldiaren barruan, martxoaren 7an, 21:30ean, afaria eginen da Iratxo elkartearen. Izen ematea asteartera

arte zabalik egonen da. Kultur etxetik, Pikuxarretik edo Iratxo elkartetik pasa behar da izena ematera.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Euskararendako neurri sorta adostuta

**Sakanako euskalgintzak larunbatean onartutako dekalogoak hauteskondeen aurretik alderdiei helaraziko zaie**

Maiatzean berrituko dira udalak eta haiek euskararen aldeko lanean bitarteko garrantzitsua direla uste dute Sakanako euskaltzaleek. Horregatik, legegintzaldi berrira begira alderdiei proposamen sorta eginen diete, dekalogoak, hurrengo legegintzaldian udalek euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu eta euskararen aldeko lan eraginkorra egin dezaten.

AEK-ko, Lakuntza eta Etxarriko EHEko, ibarreko ikastolako, Bierrik fundazioko eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko ordezkariak eta hain-

bat sakandar elkartu ziren larunbatean. Dekalogoan jasotako neurrien artean daude, esaterako, alderdiei eskatzea euren hautagaiak euskaldunak izatea, udal-tan barne erabilera arautzeko euskara planak edota "estrategikoak" diren helduen alfabetatze eta euskalduntzeari eta euskarazko hedabideei eman beharreko babesak.

Zehaztutako neurriak alderdi politikoei bidaliko dizkiete. Euskaltzaleak nahi duten indarrekin bilera egin eta proposamenak aurkezteko prest azaldu dira. Bilera erronda horretan alderdiek hartutako konpromisoak publiko eginen lituzke ondoren euskaltzaleek.

### Deialdi hirukoitzak

Oztopoen ginetik, euskaraz biziko gara. Lelo horrekin larunbatean, 17:30ean, Kontseiluak deitu duen manifestazioan parte hartzeragorbidatu dute. **Korrika Batzordeak.** Euskararen aldeko lasterke-ta martxo akaberan abiatuko da. Hura behar bezala antolatze-ko herrietako batzordeetan eta haiek



Sakandarrekin batera Nafarroako Kontseiluko eta EHEko kideak. UTZITAKOIA

### Hurrengo bilera

**Sakanako Euskalgintzaren Bil-gunea apirilaren 11n, larunbatean, 10:30ean Etxarri Aranaz-ko kultur etxean elkartuko da.**

antolatutako ekitaldietan parte hartzeko deia egin dute euskaltzaleek. **Apirilaren 25a.** Egun horretarako Kontseiluaren Nafarroako Mahaiak Iruñeko Anaitasuna

kiroldegian ekitaldia eginen du. Haren aurretik euskaltzale sakandarrek laguntzeko eta egunean bertan Iruñera joateko deia luza-tu dute.



## Ikastetxeko atsedendietan haurren euskararen erabilera sustatzeko programa

**Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jarri du martxoan eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta dago**

Sakanako Mankomunitateak programaren bidez haurren artean euskararen erabilera sustatu nahi du. Ikasleek ez dezatela euskara hizkuntza akademiko soil gisa hartu, haurren arteko harrema-

netarako hizkuntza naturala bihurtzeko oinarriak jarri nahi ditu. Horretarako, begiraleek monitorizatutako jolasen bidezko ordu erdiko zortzi saio eginen dira ikasle talde bakoitzarekin.

Dindaia fundazioari esleitu dio Sakanako Mankomunitateak Lehen Hezkuntzako ikaste-



Ikasle iturmendiarrak informatika gelan. ARTXIBOA

txeetako atsedendietan haurren euskara erabilera sustatzeko programaren kudeaketa. Fun-

dazioko kideak D eta A eredu-ko 12 ikastetxetako hurrekin ari-ko dira aurtan. Gehienez ere 43

### Parte hartuko duten ikastetxeak:

Atakondoa ikastetxe publikoa (IP), Aralarko Mikel Donea IP, Luis Fuentes IP, Arbizuko herri ikastetxea, San Donato IP, Andra Mari ikastola, Arrano Beltza IP, Urdiango herri ikastetxea, Zelandi IP, Sagrado Corazon ikastetxea, Iñigo Aritza ikastola eta Domingo Bados IP.

talderekin. Mank-ek kontratua urtez urte luzatzeko aukera du, beti ere, gehienez lau urteko mugarekin.



## Bizkaian materia organikoa kudeatzeko eredu berriak ezagutzen

Sakanako eragileen ordezkariak astelehenean Larrabatzun eta Berrizen izan zen. Materia organikoa kudeatzeko eredu ezberdinak eta bakoitzak lanpostuak sortzeko ematen dituen aukerak ezagutzeko baliatu zuten bisita sakandarrek.

Larrabatzun baserritarrek kudeatzen dute materia organikoaren bilketa eta tratamendua, gero sortzen duten konposta herriko nekazaritza lurretan erabiltzeko. Nekazarien parte hartzea ezagutzeko Sakanako EHNEko kide bat joan zen. Berriz herrian, bestalde, konpost planta txiki baten bidez kudeatzen da materia organikoa. Bai bata bai bestea proiektu pilotu gisa ari dira lantzen eta haiek zabaltzeko asmoa dute. Sakanako ereduaren berri ere jasodute.



Konpostagailura bisitan. UTZITAKOIA

Sakanako Garapen Agentziatik adierazi dutenez, "kontuan hartze-ko gertatu zaie, pauso bat aurrerago emanez herritar guztiek parte hartzen duten proiektu erreala baita Sakanan egin dena".



## Hizkuntza-politika ausarten alde

**Bihar, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzea deitu dute**

Euskararen Gizarte Erakunde- en Kontseiluak deitu du biharko manifestazioa, Oztopoen ginetik euskaraz biziko gara! leloa duena. Kontseiluko Maite Indak esan duenez, "hizkuntza bat normalizatzeko beharrezkoa da neurri politikoak hartzea eta, hain zuzen ere, horretan ari dira hainbat administrazio". Nafarroako Gobernuak, EAEn Espainiako Gobernuak duen ordezkariak edota Akitaniako prefetak euskararen alde egiten ari diren administrazioen kontra hartutako neurriak salatuko ditu bihar kontseiluak.

Kontseilutik gainontzeko udalei eta administrazioei euskararen normalizazioaren aldeko beharrezko neurri eraginkorrak hartzen hasteko eskatu die. Hainbat udalek "konpromiso irmoa



Nafarroako euskalgintzako eragileek Donostiara joateko deia egin dute.

dute herritarrek duten euskaraz bizitzeko nahia errealitate bihurtzeko", esan du Indak. Baztango Udalak onartutako euskara planaren kontra Nafarroako Gobernuak jarritako helegitea jarri du adibide gisa. Euskararen alde ari diren udalei babesak adierazi die Kontseiluak eta "gogor gaitzetsi" ditu "euskara desagerrarazi nahi duten" gobernuen jardunak.

### Beste deialdi bat

Apirilaren 25ean Kontseiluak Iruñeko Anaitasuna kiroldegian ekitaldia eginen du. Indak jakinarazi duenez, "argidugu Nafarroan behar beharrezkoa dela hizkuntza-politikak egiteko moduan iraultzea eta, ildo horretan, guk badugu gure alternatiba. Gure proposamena, apirilaren 25ean aurkeztuko dugu". Euskaraz bizitzeko nahia adieraz-tera gonbidatu du.

## &gt;&gt; Irurtzun



Plaza jendez gainezka egon zen iraileko azokan.

## Irurtzundarrek karpa erostearen alde bozkatu dute

**Bihar, 12:00etan, udaletxean aurrekontu parte-hartzaileen batzarra dago karpa motaz aritzeko**

Udaleko aurtengo aurrekontuan herritarrek erabakitako diru-saila zein izanen den zehaztu da: karpa bat eskuratzea bideratuko da diru hori. Herriko taldeek eta kolektiboek hainbat jarduera egiteko premia jotzen zuten halako estalpe bat izatea. Aurrekontu Parte-hartzaileen Taldeak kontsultaren emaitzak udalari aurkeztu zizkion pasa den asteko ostegunean. Bilera hartan erabaki zen interesa duten irurtzundar guztiei irekia dagoen batzarra egitea.

Udalak biharko batzarren berri ematen duen oharrak etxe guztietara zabaldu du. Izan ere, onartutako proposamenak karpa erostearekin batera haren aukeraketan irurtzundarren parte hartzea zehazten zen. Beraz, karparen ezaugarriak, kokalekua, erabilera data, kudeaketa eta funtzionamendua zehazteko interesatutako

pertsona eta kolektiboak biharko bileran parte hartzea deitu dituzte. Adostutakoa udalari jakinaraziko zaio ondoren.

Bosgarren urtez jarraian irurtzundarrek udalak diru sail bat zertara bideratu dezakeen erabakitze-ko aukera izan dute. Ilbeltzaren 24a eta otsailaren 1a bitartean 302 boz paper jaso ditu Aurrekontu Parte-hartzaileen Taldeak. Karparen alde 104 boto izan ziren.

### Beste aukerak

Plazaolako zubia zaharberritzea eta Artadiako bidea berreskuratzearen aldeko 67 boto izan ziren. Igerilekurako sarbidea haur-aulki eta gurpildun aulkietarako egokitzeko proposamenak 65 boto jaso zituen. Azkenik, kiroldegian gimnasioa hartuko lukeen gelak moldatzeko 64 boto izan ziren. Bestalde, botoa ematearekin batera irurtzundarrek heldu den urteko aurrekontu parte-hartzailetan sartzeko 32 proposamen berri egon dituzte.

## &gt;&gt; Altsasu

## Dantza, Altsasu eta Ukraina arteko lotura

Ukrainako gatazkak hainbat hiri eta herriren izenak ezagun bihurtu dizkigu: Kiev, Mariupol, Lugansk, Donbas, Donetsk... Izen horietako askok gerraz bestelako oroitzapenak berri dizkie altsasuar askori. Izan ere, Altsasuk dantza taldeak 1992ko udan Ukrainara bidaiatu zuen. Garilaren 31 eta agorrilaren 10abitarteko bidaiaria hartan Kieven, Mariupolen, Donetsken, Akeivon eta Makinkan dantzatu zuten altsasuarrek.

Ukrainarako bidaiaria hark lau milioi pezetako (24.040 euro) aurrekontua izan zuen. Horretarako dantzari-herrietako festetan barrakak jarri zituzten eta dantza jaialdia antolatu zuten herrian. Hurrengo urtean Ukrainako dantza talde bat Altsasuko festetan aritu zen dantzan. Aurretik jaki ez galkorren bilketa egin zuen dantza taldeak altsasuarren artean, ukrainarrek eraman zezaten. +www.guaixe.eus



Dantzariak 1998an dantzan.

## &gt;&gt; Lakuntza / Etxarri A.

## Lau gazte udalak kontratatuta

Lakuntzako eta Etxarri Aranazko Udalak langabezia zeuden lau gazte kontratatu ditu. Lakuntzan bi izan dira sei hilabeterako kontratatuak izandiren gazteak. Etxarri Aranatzen, berriz, kontratatutako gazteak bi izan dira eta udalarendako sei hilabetez ari dira. Kontratazio horientatik Nafarroako Gobernuak Lakuntzako Udalari 9.000 euro eman dizkio eta Etxarri Aranazkoari 13.500. 25 urte baino gutxiago edo 30 urte eta %33 edo gehiago ezgaitasuna duten gazteak izan dira kontratatutak.

## &gt;&gt; Altsasu



## Aita Barandiaran egoitzako 36 plaza kontzertatuta

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Aita Barandiaran adinduen egoitzako 36 plaza kontzertatzea adostu du. Horretara, lau milioi euro bideratuko ditu hurrengo lau urteetan. Kontzertuarekin programaren baitan egin du gobernua. Haren bidez, besteak beste, plazak aldi baterako kontzertatu daitezke. Gainera, egoitzak gizarte bazterketa arriskuaduten eta mendekotasunik ez duten adinduek eta 35 urte baino gehiago duten eta mendekotasun handi duten pertsonak ere har ditzake.

## &gt;&gt; Arakil / Uharte Arakil

## Bake epailearen eta ordezkoren karguak hutsik

Arakilgo eta Uharte Arakil Udalek jakinarazi dutenez, bake epaile titular eta ordezkoren postuak hutsik daude. Ardura horiek hartu nahi dituztenek euren eskaerak dagokion udaletxean aurkez ditzakete; 15 eguneko epea dago zabalik.

### SAKANA

## Sakandarrik ez Euskal Herriko mus txapelketako finalean

Larunbatean Iruñeko Arrano Elkarrekin Euskal Herriko mus txapelketako Nafarroako finala hartu zuen. Foru geografia guztitik joandako 128 bikote musularien artean 14 sakandar zeuden. Haietako batek berak ere ez zuen lortu martxoaren 7an Lekeition jokatu den Euskal Herriko finalerako txartelik.

### SAKANAKO MUSLARIAK

Irurtzungo Richard Zidrian eta Iñigo Rekalde, Mikel Olló eta Edorta Brun; Irañetako Raul Leza eta Alvaro Lakuntza eta Patxi Lakuntza eta Txus Gastesi; Uharte Arakilgo Jose Luis Perez Castillo eta M. Aldasoro, Fco. Otsagabia eta Peio Gartzes eta Iban Gorriti eta Mikel Razkin; Lakuntzako Xabi Betelu eta Aritz Razkin; Arbizuko Jesus Razkin eta Alain Berastegi eta Martin Zeberio eta Ohian Mendiñueta; Iturmendiko Miren Galartza eta Arantza Jungito eta Altsasuko Juanjo eta Angel Armendariz, Moti Alzelai eta Kili eta Mikel Lopez de Gereño eta Gorka Mintegi.

## Azken inauteriak

Olaztin opatu genuen motor-zale koadrila hau. Olaztiko argazki gehiago [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

Hiriberri denetarikoz mozorroak izan ziren. UTZITAKOIA

Ihabarko Landarraren kezka. Gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus). MAIALEN HUARTE ARANOAltsasun super-heroiekin batera makina bat mozorro gehiago izan ziren. Argazki gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

## SAKANA

# Sakandarren %6,73 kontzeju batean bizi da

Nafarroako Gobernuak kontzejuetako populazioaren zifrak jakinarazi berri ditu. Horien arabera, Sakanako 16 kontzejuetan 1.381 pertsona, sakandarren %6,73 bizi ziren joan den urteko lehen egunean (kontzejua desegina duen Aizkorbe barne). Gainontzeko 12 herrietan 20.504 sakandar bizi

gara, ibarreko populazioaren %93,27.

Azken 15 urteetako bilakaerari erreparatuta, Arakilgo kontzejuen biztanleria kopuruetan aldaketa txikiak izan dira. Salbuespenak dira populazioa ia bikoiztu egin duen Etxeberri, hurrenez hurren %28,2 eta %17,5

hazi diren Satrustegi eta Hiriberri eta populazioaren ia laurdena galdu duen Ekai. Ergoienako biztanleriaren bilakaera azken urteetan negatiboa izan da, eta %16,83 ergoendar gutxiago daude. Azkenik, 15 urtean Lizarragabengoako biztanleria %25 igo da.

## Kontzejuetako populazioaren bilakaera

Herria	Populazioa eta data					Aldea Kop
	2014-01-01	2011-01-01	2007-01-01	2003-01-01	1999-01-01	
Aizkorbe*	21	23	22	24	15	6
Urritzola	20	21	21	22	23	-3
Errotz	70	79	68	59	66	4
Izurdiaga	168	184	187	191	173	-5
Etxeberri	57	56	51	44	34	23
Egiarreta	71	64	62	51	63	8
Etxarren	153	155	150	146	147	6
Ekai	31	39	38	42	41	-10
Zuhatzu	37	44	36	25	38	-1
Satrustegi	50	46	40	40	39	11
Hiriberri	141	139	116	118	120	21
Ihabar	122	106	116	105	120	2
Lizarraga	194	211	206	210	224	-30
Dorrao	110	102	114	119	131	-21
Unanu	96	109	106	119	126	-30
Lizarragabengoa	40	40	39	38	32	8
<b>Guztira</b>	<b>1.381</b>	<b>1.418</b>	<b>1.372</b>	<b>1.353</b>	<b>1.392</b>	<b>-11</b>

\*Kontzejua deseginda dago.



Etxarrengo eta Etxeberriko ikuspegia Ekaitik. ARTXIBOA

## Kontzejuetako populazioa Sakanakoarekin alderatuta

Urtea	Sakana		Kontzejuak	
	Biztanleria	%	Biztanleria	%
1999	19.104	92,71	1.392	7,28
2003	19.832	93,17	1.353	6,82
2007	20.086	93,16	1.372	6,83
2011	20.776	93,17	1.418	6,82
2014	20.504	93,27	1.381	6,73

## Kontzeju osatutako udalerrien bilakaera

Udalerrria	Urteak					Aldea	
	2014	2011	2007	2003	1999	Kopurua	%
Arakil	941	956	907	867	879	62	7,05
Ergoiena	400	422	426	448	481	-81	-16,83



## Ura bere bidean

Herenegungo euri jasen ondoren, Etxarri Aranatz 74,37 litro metro karratuko neurtu ziren, ubeldeak bere onera bueltatzen ari dira pixkanaka. Botatako euriak ibai eta erreken emariak handitu zituen. Etxarren dagoen Arakil ibaiaren emariaren kontrolerako estazioa alerta egoeran egon zen atzo. 340 m<sup>3</sup>/s neurtu ziren eta 4,5 metroko maila hartu zuen ubeldeak. Irurtzunen Larraun ibaiko kontrol estazioa, berriz, aurre-alerta egoeran egon zen. Larraun ibaiak ia 250 m<sup>3</sup>/s eraman zituen eta 3,5 metroko maila hartu zuen. Batean eta beste emariak behera egin du gaur.



## Larunbatean, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxean

Makina bat herri-eragile gonbidatuta daude Sakanako Gure Esku Dago taldearen biharko aurkezpena. Gaizka Aranguren izanen da ekitaldiko zeregonia maisua. "Erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten duen dinamika anitza eta parte-hartzaile" gisa definitzen du bere burua Gure Esku Dago. Dinamika herritar hori hiru printzipioen bultzatzen da: lehena, herri bat gara; bigarrena, erabakitze eskubidea dugu eta, azkena, herritarren garaia da. "Erabakitze eskubidea herri honetan bizi garen guztion topalekua" izateko lan egiten du Gure Esku Dago.

Printzipio horiek kontuan izanik, "alboan ditugun pertsoneniko begirunez eta era positiboan lan egitea gustuko" dute dinamikako kideek. Horren adibide joan den urteko garagarzaroaren 8an

# Bihar aurkeztuko da Sakanako Gure Esku Dago



Garagarriaren 8an makina bat sakandarrek parte hartu zuten Gure Esku Dagoaren giza katean.

antolatutako giza katea. Hain zuzen, ekimen hari eta erabakitze eskubideari buruzko hainbat iritzi jasotzen dituen Jostunak dokumentalaren Sakanako

mustutzea ere egingen da bihar Lakuntzan. "Milaka lagunek hila-beteetan egindako jostun lana ikusi ahal da dokumentalean; haria herritarren borondatea iza-

nik, deslotuak zeuden herritarrek batzeko gaitasuna izan dute herriz herri lanean jardun dutenek". Biharko aurkezpena auzatearekin despedituko da.

**2x1 Gaur azken eguna!**

**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 • ALTSASU

**Igoa**  
arroiendegia

948 460 111 • Arkuetabide kalea • Etxarri Aranatz

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

&gt;&gt; Altsasu

# Martinez en epaiketa atzeratuta

**Asteazkenerako iragarria zegoen epaiketa garilaren 2ra aldatu dute, lekuko bat agertu ezin zelako**

Asteazkenean epaitzekoak ziren Aitor Carrera donostiarra eta Edurne Martinez altsasuarra Donostiako Zigor Arloko 5. epaitegian. Duela bi urteko Donostiako aske gunean atxilotzeko agindua zuten sei gazte babesteko herri harresian parte hartuzuten biek. Ertzaintzak atxilotu eta agintearen kontrako atentatua leporatu zien. Martinezendako 15 hilabeteko espetxezigo-



Mozorrotuek Martinezi elkartasuna adierazi zioten larunbatean.

rra eta isuna eskatzen dute.

Edurnerekin bat dinamikak jakinarazi duenez, epaiketa garilaren 2ra atzeratu da; antza, Martinezen lekukoetako bat ezin zelako epaiketara joan. Ondorioz, gaurko deituta zeuden mobilizazio guztiak bertan behera utzi ditu Edurnerekin bat dinamikak. Hala ere, "epaiketa politikoak eten arte" lanean jarraitzeko asmoa azaldu dute dinamikatik. Esaterako, larunbatean babes argazkia eta bazkaria egin zituzten.

&gt;&gt; Arakil

## Jardunaldi irekiak antolatu ditu Talde Independentteak

Arakilgo Udalean agintean den Arakil Independentteak taldeak ibarreko biztanle guztiei irekiak dauden bilkurak antolatu ditu. Hurrengo legegintzaldirako arakildarren eta kontzejuen beharrak zein diren jaso nahi dute independentteek. Horregatik, arakildarrak gonbidatu dituzte antolatu dituzten bi jardunaldietan ekarpenak egin eta iritzia ematera. Aurreneko saioa gaur, 19:30ean izanen da, Hiriberriko balio anitzeko gelan. Bihar, berriz, 11:30ean Izurdiagako kontzeju-etxean.

SAKANA

# Goi tentsioko linearen kontrako plataforma Parlamentuan

**Gaur, 16:30ean, Sustapen Batzordean egitasmoaren egungo egoeraren berri emanen du**

Deikaztelu eta Itsaso Sakanan barna lotuko dituen goi tentsioko linearen kontra dagoen Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kideak asteartean Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeko kideekin elkartziren. Egitasmoa gaur egun zertan den, Nafarroako Gobernuak duen jarrera eta 220 udal eta kontzejuk luzatutako babes eskaeraz aritu ziren plataformako kideak.

Bestalde, proiektua salatzen, larunbatean Nafarroako Gobernuaren egoitza parean kontzentrazioa egin zen plataformak deituta. Gogorarazi zuten Espainiako Industria Ministerioaren 2015-2020ko energia plangintzan jasotakoa: Sakana zeharkatzen duten goi tentsioko bi lineak indartu eta 400 kV-eko beste bat eraikiko da. Haien egitekoa estatuan dagoen energia soberakina esportatzea izanen litzateke.

216 toki-erakunde egitasmoa bertan behera uzteko eskatu dute-



Argindar librea eta ate birakariei buruzko parodia. UZTITAKOIA

la azpimarratu dute plataformatik. Horregatik, Nafarroako Gober-

nuari herri-borondatea errespetatzeko eskatu diote.

&gt;&gt; Altsasu / Sakana

# Kataluniako erabakitze eskubideari buruzko hitzaldia

**Gaur, 19:00etan, Altsasuko Zubiondo elkarteak. Aldi berean, Askapenak aurtengo nazioarteko brigaden aurkezpena egingen du**

Anna Gabrieleak, Kataluniako CUP eta Endavant-eko erakundeetako kideak, gaur hitzaldia emanen du Altsasun. Kataluniaren erabakitze eskubideari buruzko azalpenak emanen ditu. Ernai gazte erakundeak eta Askapena erakunde internazionalistak elkarrekin antolatutako saioak balioko du Askapenako kideen aurkako epaiketa salatzen ere.

Aldi berean, erakunde interna-



Askapenaren palestinarren aldeko kontzentrazio bat. ARTXIBOA

zionalistak nazioarteko brigaden antolakuntzarekin segitzen dela jakinarazi du, erakundearen kontrako epaiketa aurki egingen dela jakin arren. Joan den urtean Argentina, Uruguay, Venezuela, Bolibia, Palestina, Saharar lurralde okupatuak, Gaztela, Aragoi eta Herrialde Katalanetan izan ziren Askapenako brigadistak. Herrialde horiei aurten Galizia, Mexiko, Brasil eta Kurdistan gehitu dizkio. Askapenarekin brigadista izan nahi duenak martxoaren 31ra arteko epea du izena emateko.

&gt;&gt; Olatzagutia

## ELA bozkatuena porlandegian

Ilbeltzaren 30ean Porlandegian egingo dako hauteskunde sindikaletan langileen babes gehien jaso zuen sindikatua ELA izan zen, 50. UGTK 40 boto eskuratu zituen eta CCOO 16. Enpresa batzorde berria ELAko eta UGTKo launa kidek eta CCOOko beste batek osatzen dute. Lehen UGTK 4 zituen, ELAK 3 eta CCOO 2.

MOTZEAN

## Zorri Azoka etzi

**Igandean, 11:30etik 14:30era, Etxarri Aranazko estalopea**

Hileko aurreneko igandeko hitzorduari hutsik egin gabe, Zorri Azoka etzi bueltan izanen da. Merkatusozialera gerturatzen denak artisautza, barazki ekologikoak, bertako produktua, erakundeen informazio

eta zabaltze gunea, musika, artea edota truke txokoa opatuko ditu.

## Txerriboda

**Korrika-ko kilometroa erosteko ekimena bihar egingen da**

Garai batean jatekoa ziurtatzeko etxe guztietan txerria hiltzen zen. Ohiturak aldatu dira eta gehienok okela bila harategira goaz orain. Txerria hil ondoren egiten zen lan guz-

tia nolakoa zen erakutsiko dute bihar goizean. Odolkiak, txistorrak egin, piezak zatitu, unean bertan jateko zerbait prestatu... Languztiak despeditu ondoren Txapel Azpi elkartean afaltzera elkartuko dira. Igandean, berriz, txerri piezen banaketa egingen dute. Afarirako eta haragi zatiak jasotzeko izena eman eta 30 euro ordaindu behar dira. Lortutako dirua Korrika-ko kilometro bat erostera bideratuko da.

## Esako urtegiaren handitzeari buruzko dokumentala

**Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai izanen da**

*Rene Petiten amesgaiztoak* dokumentalaren emanaldia Esako urtegiaren handitzearen kontra dauden Esa + Ez eta Aturando Yesa elkar-

teek egin dute, Eguzki Bideoak-en laguntzaz. Elkarrekin euren borroka azaltzeko antolatu dute emanaldia. Hainbat galderari erantzuna eman nahi dio dokumentalak: egokia al da Esa handitzeko eskualdearen geologia? Zer gertatuko da presak ez badio eusten? Zein abiaduran hustuko dira urtegi berriaren 1.079 hm3? Zenbat denbora daukate eskualdeko biztanleek haien herriak ebakutzeko?



## » Altsasu

## Martxoaren 29an festei buruzko herri galdeketa

**Martxoaren 22an eginen den herri batzarrean zehaztuko da galdera.**

Herriko festen data zehazteko Altsasuko Udalak eginen duen galdeketa loteslea martxoaren 29an eginen da. Udalak ilbeltzeko bilkuran erabaki zuen kontsultaren aurretik herri batzarra deitzea. Burunda pilotalekuan izanen da martxoaren 22an; "festa egutegiaren inguruan gizarte akordioa lortzeko informazio batzarra eta alter-

natiba sortzailea" izanen da bilkura.

Hala, batzarren lehen zatian festa egutegiari buruzko argudioak emanen dira eta bigarrenean proposamenak. 22ko batzarrean erabakiko da herri-galdeketa eginen den galdera. Aldi berean, batzarrak erabakiko du festen data mantenduko den edo aldaketa egingen bada aurtengora den baka-rrik edo betirako.



Peñetako kideak kalejiran. ARTXIBOA

## » Udalak Nafarroako Gobernuari Memoria Historikoko Legea betetzeko eskatu dio

1936ko gerrakoan Sakanan hainbat pertsona hil zituzten. Batzuen gorpuk berreskuratzeko daude eta beste batzuen hezurdurak berreskuratu dira, baina haiek identifikatzeko DNA probak egitea falta da.

Memoria Historikoaren Legeari segituz, bai baterako bai besterako dirua jarri behar duena Nafarroako Gobernu da. Baina ez du halakorik egiten. Esaterako, Urbasako saroiko lau gorpuzkinak identifikatzeko bilketa egingen hasi dira. Horregatik, Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuari arlo horretan dagokio-

na bete dezala eskatu dio. Foru administrazioak ezer egin bitartean Altsasuko Udalak zer egin dezakeen aztertuko du.

## Zelandiko etxea

Ikastetxe publikoko atezainaren etxebizitza zena aspaldi ez da erabiltzen eta zahartuta dago. Hari beste erabilera batzuk emateko aukera izanen du aurrerantzean udalak. Herenegun erabakitakoaren arabera, hezkuntza, gizarte edo kultura erabilerrako izanen da orain arte etxebizitza izan dena.

## Udala, atzera ere, osatuta



Herenegun hartu zuen zinegotzi kargua PSNko Juan Miguel Perez Hurtadok. Lastailaren 4an hil zen Braulio Salvado Calvoren ordez sartu da udaletxean. Sozialista altsasuarrek legegintzald mugitua izan dute. Bost sozialistek bete dituzte zinegotzien bi aukerak. Denbora batez biak ere hutsik egon ziren. David Medina da beste zinegotzia. +www.guaixe.eus

## SAKANA

## Axioren dokumentala grabatzeko crowdfundingaren helburua lortuta

**Internet bidez 2.760 euro lortu dira. Diru bilketak jarraitzen du, dokumentala grabatzeko aurrekontua 5.000 eurokoa baita**

Axioren Lagunak fundazioak ilbeltzean aurkeztu zuen Jose Ignazio "Axio" Floresen bizitzari buruzko dokumentala egiteko egitasmoa. Proiektua aurrera eramateko diru bilketa kanpaina abiatu zen orduan, crowdfunding edo internet bidez, batetik, eta Laboral Kutxan kontu zenbakia zabalduz, bestetik. Dokumentalak sakandarren eta Axioren lagun eta ezagunen bultzada jaso du, www.karena.eu pla-



Dokumental egitasmoaren aurkezpenean makina bat sakandar izan ziren.

taformako crowdfundingaren bidez 2.500 euro jasotzea aurreikusten

baitzen, eta 2.760 jaso baitira. Baina Laboral Kutxako kontu zenba-

## Ekarpenak

Kontu korrantea zabalik:  
3035 0112 00 1121055951

kiak zabalik jarraituko du interesatuen borondatea jasotzeko, izan ere dokumentala grabatzeko proiektuak 5.000 euro inguruko aurrekontua baitu. "Pozik gaude jendeak erantzun duelako. Baina dokumentala grabatzeko hasierako aurrekontua 5.000 eurokoa da. Horregatik, Laboral Kutxako kontu zenbakiak zabalik jarraitzen du, eta bertan euren laguntza ematea eskatzen diegu sakandarrei" adierazi du Monica Etxebarriak. +www.guaixe.eus

## » Uharte A./ Arruazu

## Gizona hilda

Egunero bigarren mailako errepide-tik Uharte Arakildik Lakuntzarajoan-eterria egiten zuen 50 urteko gizon uharterra herenegun hil zen. Ibaiak gainezka egiten duenean Arruazu parean errepidea azpian hartzen du urak sortutako baltsak. Antza, haie-tako baltsa batetara erori zen gizona. 18:15 aldera izan zen. Arbazuar batek ateratzea lortu zuen, baina Altsasuko zaintzako mediku taldea alferriksaiatu zen hurabiziberritzen. Foruzaingoak gertatutakoa ikertu zuen eta gaur eginen diote autopsia gizonari.

**asi** arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

**Arantxa Sueskun Igoa**  
PSIKOLOGOIA - PSIKOTERAPEUTA  
Elkargokide-zk.: N-0806

Bere burua ezagutzen ikasten duen edonor, manipulatzeko zailagoa da.

**Zeure burua ezagutu nahi duzu?**

Urbasa kalea 15, behea  
31800 - Altsasu (Nafarroa)  
669 367 422

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es



## Nonerabili

## GOIKO LOREDENDA

## ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

## MARI JOSE ILEAPAINDEGIA

## ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

## FRUITIS FRUTA DENDA

## IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

## EROSKI BIDAIK

## ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotel-tako eta garraio hutsen erreserbak izanez. Eskaintza ez metagarria

## ARROXA LIBURUDENDA

## ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

## LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

## URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

## LARKA

## ALTSASU

100 €tik gorako erosketen-gatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik)

## LASTAI GASOLINDEGIA

## ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

## FORD GABIRONDO

## ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza


[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Gorka Larrea Ondarra**  
III. urteurrena


Izan zarenagatik  
eta erakutsi diguzunagatik  
beti izango zara gure oroimenean  
eta bihotzean.

**Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane**  
Arbizu-Bakaiku



**Gorka Larrea Ondarra**  
III. urteurrena

Batzuetan anai modura gerizatzen  
besteetan lagun leiala eskaintzen  
baina beti irmo hirea gordea,  
zer gerta ere, gurea lasaitzen.  
Munduari jarki zinen modura  
hamaika bider etorriko  
zaizkigu bizipen denak burura.  
Betiko,  
**Sergio eta Abarne**



**Gorka Larrea Ondarra**  
III. urteurrena

Nahiz eta urruti egon,  
gure bizitzan beti  
gertu sentitzen zaitugu.

**Zure lagunak**  
Bakaikun, 2015eko martxoaren 3an.



**Jose Ignacio Gurutzarri Lakuntza**  
II. urteurrena

Orain bi urte ixildu zen zure armonikaren doinua baina,  
izan zarenak eta erakutsi diguzunak  
indartzen gaitu.

Beti zaude gurekin, aitatxo.

**Zue fameliye**  
Lizarraga Ergoiena

**Oroigarriak**



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA  
948 564 275



GRUPO  
Funeraria  
**VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.net](mailto:zorian@guaixe.net)

### Erosil / Saldu

SALDU

**Telebista.** 40 €-ren truke egoera onean dagoen telebista (Philips 37"). Tel 630 49 08 44

### Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

**Bi solairutako etxe berriztatua alokatzen da.**  
Zuhatu inguruan. Lursaila du. Tel. 948 500 101.

### LOKALAK

ERRENTAN EMAN

**Arraindegi bat eskualdatzen da Goierrin.**  
Lanean eta errentagarria. Kuxkuxerorik ez, mese-  
dez. Interesatuak hots egin telefono honetara:  
635 75 83 74.

### Ikastaroak

**Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plaza.**  
Pilates, indoor zirkloa, aerodance, mantentze

soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazak bete-  
tzeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikasta-  
roak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56  
45 12 telefonoan.

### Lehiaketa

**Erromantzatuauren koloreak.** Nafarroako  
ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatua  
da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke  
lanak. Informazioa  
[www.restauranteromantizado.com](http://www.restauranteromantizado.com)

### Oharrak

**Odol-emailea.** Otsailaren 27an Altsasun goizez.

**Txaro Begueren liburuaren inguruan litera-  
tur hizketaldia.** Martxoaren 11n, asteazkenean,  
18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ekintzaileei bultzada.** Nafarroako Gobernuak  
sustatutako programa baten bidez zortzi enpresa  
proiektu aukeratu, bultzada programa batean  
sartu eta laguntza ekonomikoa emanen zaie.

Eskaerak martxoaren 10era arte. Informazioa  
[www.cein.es](http://www.cein.es)

**Etxarriko irakurle taldea.** Alberto Ladronen  
"Arotzaren eskuak" liburuaz ariko dira martxo-  
aren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri  
Aranazko liburutegian.

**Axio.** Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala  
egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04  
3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo  
[www.karena.eu](http://www.karena.eu) plataformaren bidez egin dezake.  
Informazio gehiago [www.axioflores.com](http://www.axioflores.com)

**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xalao  
telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen  
hasteko 50.000€ behar ditu. Diru ekarpena  
non? [www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-iruñerrian](http://www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-iruñerrian)  
edo Iruñeko Karririkiri Euskal dendan  
(Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan  
(kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua  
sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako  
laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua

### JAIOTZAK

- **Unai Garcia Gomez**, otsailaren 18an Altsasun.
- **Alain Senar Da Costa**, otsailaren 21ean Etxarri Aranatzan.

### EZKONTZAK

- **Jose Ignazio Lazkoz Lekuona eta Jasone Etxebeste Razkin**, otsailaren 21ean Lakuntzan.

### HERIOTZAK

- **Mariano Galarza Garmendia**, otsailaren 22an Urdiainen.
- **Juliana Denche Caldito**, otsailaren 22an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta  
udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez  
duenak, han jakinarazi dezala.

garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen  
jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70  
10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo  
[sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.**  
Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelope-  
an. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39  
2290033933 Laboral kutxa) edo  
<http://goteo.org/project/ahotsa-behar->

dugu?lang=eu bidez egin.

**Tartariendako laguntza.** Laguntza ekonomi-  
koa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591  
korrantean sartu daitezke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon  
laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta  
finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin>

## PILOTA

**SAKANDARRAK ZIZURKO LAU TERDIAN:** Zizurko lau terdiko txapelketako asteburuko jardunaldian sakandarrak lanean ari-

tu ziren. Bakaikoak eta Ganboak irabazi egin zuten, baina Lasok, Erdoziak, Ezkurdiak eta Murgiondok galdu.

## Aizkora



## Iban Resano Zilarrezko Aizkorako finalerdietan

Aitor Senosiainekin batera finalera sailkatzeko lehiatuko da, larunbatean, 13:00etan, Bilbon

Zilarrezko Binakako Aizkora Txapelketako bi finalerdiak jokatu dira asteburuan, martxoaren 8an jokatu den final handira zein bikote sailkatzen diren erabakitzeko. Larunbateko finalerdia 13:00etan jokatu da Bilboko Doña Casilda parkean. Bertan ondoko bikoak lehiatuko dira: Vicente-Vicente, Senosiain II-Iban Resano eta Alkizalete II-Alverdi "Txikia IV". Igandean Beizaman 12:30ean jokatu den finalerdian, aldiz, Otaño-Saralegi, Mugertza III-Larrea III eta Rodríguez-Irazabal. Onenak sailkatuko dira final handirako, eta ea Iban Resanok eta Senosiain II.ak bertan egotea lortzen duten.

## ERDOZIA ETA BELTZA KANPO

Larunbatean Binakako Zilarrezko Aizkora Txapelketako finalerdietara sailkatzeko berraukerako jardunaldia jokatu zen Bilbon. Jokin Alkizalete eta Julen Alberdi "Txikia IV" nagusitu ziren eta beraiek jokatu dute finalerdia (11:03). Haien atzetik sailkatu ziren Zaldua-Dorronsoro (12:44), Toledano-Trilla (13:43) eta Erdozia-Beltza (14:42). Hortaz, etxarriarrak finalerdietatik kanpo geratu ziren.

## Duatloia

## Maiza 32.a Ermuan

Jose Almagrok irabazi zuen proba

Asteburuan Ermuko Sprint Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrikan). Parte hartu zuten 100 duatleten artean Jose Almagro izan zen azkarrena (1:05:13). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarra 32.a sailkatu zen (1:14:18).

## Mendi lasterketak

## Joxeja Maiza 15.a Antzuolako 8 Miliatan

235 korrikalarien artean Iñigo Alzola eta Sara Peña gailendu ziren

Igandean Antzuolako 8 Miliak Mendi Lasterketa jokatu zen Antzuolan, 13,8 km-ko proba. 235 korrikalarik bukatu zuten proba, Iñigo Alzola arrasatearra (1:08:55) eta Sara Peña oriotarra (1:29:14) buru zirela. Joxeja Maiza etxarriarra 15.a izan zen (1:16:07).

## Kiroldegia



## Monitore izan nahi dutenendako oinarritzko ikastaroa

Kirol hezkuntzako hastapen ikastaroa antolatuko du Mank-ek, apirilean eta maiatzean Altsasun gauzatuko dena

Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Kirol Institutuarekin batera, kirol monitore izan nahi dutenendako oinarritzko ikastaroa antolatuko du: Kirol hezkuntzako hastapen ikastaroa. 16 urtetik gora dituzten eta haurren kirol eskoletan dabilzan edo ibiliko diren begiraleei zuzendua dago, batez ere saskibaloian, futbolekoan, atletismoan eta pilotan dabilzanez edo ibiliko direnei.

Ikastaroa apirilaren 18an eta 25ean eta maiatzaren 9an, 16an eta 23an gauzatuko da, 9:00etatik 13:30era, Altsasun. Azken egunean, maiatzaren 23an, azterketa pasa beharko dute izena ematen dutenek. Kirol hezkuntzako hastapen ikastaroa 18 ordukoa izango da, eta ondoren azterketa pasa beharko da. Eta segidan kirol bakoitzeko ikastaro espezifikoa egin beharko da. Ikastaroaren edukia dagokionez, lau atal nagusitan banatuko da: planifikazioa, irakaskuntza, mugimenduaren analisia eta lesioak eta lehen sorospenak, entrenatzailearen arduraz zibila eta elikadura. Lortuko den titulua 1. mailako prestakuntzaren barruan egonen da.

### IZENA EMATEA MANK-EN, MARTXOAK 18 BAINO LEHEN

Martxoaren 18a baino lehen Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuan (948 464 866 telefonoan edo kirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa). Prezioa: 120-150 euro artean, kirolaren arabera eta ikastaro espezifikoa dituen orduen arabera. Ikastaroak diru-laguntza izanen du.

## Pilota

Sailkapena:

1.	Berasaluze-Zubieta	8 puntu
2.	Ezkurdia-Zabaleta	7 puntu
3.	Irujo-Barriola	7 puntu
4.	Artola-Albisu	6 puntu
5.	Oinatz-Aretxabaleta	5 puntu
6.	Retegi Bi-Rezusta	3 puntu
7.	Xala-Merino II	2 puntu
8.	Olaizola II-Beroiz	2 puntu

### 11. jardunaldia

**Xala-Merino II / Ezkurdia-Zabaleta** (ostiralean, 20:30ean, Garazin. ETB1)

**Irujo-Barriola / Olaizola II-Beroiz** (larunbatean, 17:00etan, Iruñean)

**Elezkano-Zubieta / Oinatz-Aretxabaleta** (larunbatean, 17:00etan, Bilbon. laSexta)

**Retegi Bi-Rezusta / Artola-Albisu** (igandean Beasainen. ETB1)

Gauzak ongi doazkie Pablito Berasaluzeri eta Aitor Zubietari. Larunbatean Amorebietan 22 eta 16 hartu zituzten menpean Artola eta Albisu eta Binakako hasierako txapelketako lider berriak dira, 8 puntu lortuta. Gainera, hanka eta erdia dute finalerdietan. Partida gogorra eta orekatuan, 13 eta 16 galtzen zeudela, hurrengo 9 tantoak segidan egin zituzten Berasaluzek eta Zubietak, 22 eta 16 irabazita. Atzelariak izugarri egin behar izan zuten lan eta Berasaluzek eskuak justu antzean zituela despeditu zuen lehia.

Pozik zegoen Aitor Zubieta. "Puntu garrantzitsua irabazi dugu, zortzigarrena, eta oso kontentu gaude. Hasieran ni ez nengoen oso santu. Ez dakit hotzaren gatik edo ez nuen eskuina ongi berotuta, kalloak eta... Baina partida erditik aurrera, eta lana egitearen poderioz, pilota baztertzaren eta altura ematen hasi gara eta lortu dugu. Partida gogortu da eta garrantzitsuena, etxera puntua. Baina oraindik ez dago lana egin, goiko sailkapena oso estu dagoelako. Entxufatuta atera beharko dugu frontoira, finalerdietarako sailkatzeko" azaldu zuen Zubietak.

Bestalde, ostiralean Ezkurdiak eta Zabaletak ezin izan zuten etxe-

# Berasaluze II-Zubieta, liderrak

8 PUNTUREKIN, HANKA ETA ERDIA DUTE FINALERDIETAN. EZKURDIA-ZABALETA (7 PUNTU) IRUJO-BARRIOLAREKIN BERTINDUTA DAUDE



Zubieta eta Berasaluze lider berriak dira eta momentu gozoan daude.

an irabazi. Altsasuko Burunda pilotalekuan giro ederra izan zen, baina ezin izan zen festa borobildu. Partida oso lehiatua, 22 eta 20 gailendu ziren Oinatz Bengoetxea eta Alvaro Untoria. Ezkurdiak eta Zabaletak 7 punturekin jarraitzen dute, eta finalerdietara sailkatzeko puntuatu beharrean daude.

## Datorrena

Eskuko arazoekin jarraitzen duen Berasaluze ordezkatzeko duen Danel Elezkanok eta Aitor Zubietak, Ezkurdia eta Zabaleta irabaztetik datozen Oinatz Bengoetxea eta Aretxabaleta ordezkatzeko duen Alvaro Untoria izanen dituzte aurkari larunbatean Bilbon. Oinatz eta Untoria irabaztera aterako dira, oraindik ere finalerdietara sailkatzeko aukera baitute, eta Elezkanok eta Zubieta 9. puntua lortzera aterako dira kantxara.

Bestalde, Xala eta Merino II.a izanen dituzte aurkari Ezkurdiak eta Zabaletak gaur Donibane Garazin. Azken hiru jardunalditan galdu egin dute sakandarrek. "Zer

gertatzen zaigun? Ezer ere ez. Bagenekien halako egoerak iritsiko zirela eta orain aurre egin behar diegu, gutxienik orain arte egin duguna baino hobe egin beharko dugu. Bosgarren sailkatutik bi garaipen gehiago ditugu eta hori probestu beharko dugu. Altsasun galdu egin genuen, baina sentsazioak ez ziren horren txarrrak izan. Ezin duguna da zalan-tzekin hasi" azaldu zuen Joseba Ezkurdiak material aukeraketan. Xala eta Merinoren kontrako partida "oso gogorra" izango dela aurreikusten du. "Beraiek ez dute finalerdietarako sailkatzeko aukerarik, baina irabazi nahi dute, euren konfiantza berreskuratzeko, eta oso arerio arriskutsuak izango dira" gaineratu zuen.

"Gure jokopuntua eta gure konfiantza berreskuratu behar ditugu. Ez dakit erlaxatu garen edo konfiantza galdu, baina buelta eman behar diegu. Sailkapena oso estu dago eta Bengoetxea-Aretxabaleta oso indartsu datoz" nabarmendu zuen, bestalde, Zabaletak.

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsaldez zabalik

**martxoko eskaintza**

**DESKONTUAK**  
**ARRAIN**  
**FRESKOETAN**  
(asteazken eta ostiraletan)

**mariaeugenia**  
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

**Txirrindularitza**



Burundako txirrindulariak 2014an.

**Burunda Txirrindularitza Klubeko taldeen aurkezpena**

Larunbatean, 12:15ean, Altsasuko lortiaok aurrealdean

Denboraldia hastear dagoen honetan, Burunda Txirrindularitza Klubak 2015 denboraldiko lasterketan arituko diren taldeak zeintzuk diren erakutsiko du bihar, larunbatean, eguerdian Altsasuko lortia Kultur Gunean.

12:15ean Burundako klubeko taldeei -Quesos Albeniz juniorrak eta kadeteak eta Katealde-La Tasca de Don Jose-Cafes San Donato eskolak- argazkiak aterako dizkiete lortiaok kanpoaldean. Eta segidan, 12:45ean, Burundako junta berria eta txirrindularien aurkezpena egingen da lortia barruan.

**ZIKLOTURISTAK ERREPIDERA**

Astebururo txirrindulari hartu eta buelta bat ematera joaten den txirrindulari talde edo "grupeto" bat dago Sakanan. Taldetxo honek zikloturismo egutegi bat antolatuko du. Goizeko 10:00etan dute hitzordua, larunbatetan, Altsasuko lortia parko tren lokomotoran. Larunbat honetan, otsailak 28, ondoko ibilbidea egingo dute: Altsasutik aterako dira, Irurtzuneraino heldu, han buelta hartu, Lakuntzan industriadetik sartu eta Zarapiko zubitik Etxarrira helduko dira, ibilbidea Altsasun despeditzeko. Nahi dutenek beraiekin bat egin dezakete.

Aste Santuan astegunetan goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua.

**Atletismoa**

**Altsasuko II. Lilasterketarako izena ematea zabalik**

Emakumeen lasterketarako inskripzioa [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean eta Emakumeen Bilgunean egin daiteke, dohainik

Martxoaren 15ean jokatu da, bigarren aldiz, Altsasuko II. Lilasterketa, emakumeendako lasterketa parte-hartzaile eta ez lehiakorra. Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren ildora prestatu da lasterketa. Altsasuko Udalak antolatu du, Emakumeen Bilgunearen bidez, eta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren laguntza izan du.

Helburua emakumeen parte-hartzea sustatzea da, adin guztietako emakumeena. Probak San Silbestrearen ibilbide bera izango du, 4 km ingurukoa, Foru plazatik aterata. Bukaeran parte-hartzaileendako hamaiketako izanen da. Aurreko urtean Lilasterketa arrakastatsua izan zen: prestatutako 100 petoak amaitu ziren. 122 emakume izan ziren aritu zirenak.



Aurreko urtean 122 emakumek parte hartu zuten Lilasterketan.

**Izena emateko**  
Emakumeen lasterketan izena emateko epea zabalik dago. Horretarako Emakumeen Bilgunea deitu (948 564 823) edo [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean sartu behar da, eta izena ematea dohainik da.

**Areto futbola**

**Magna Palmaren gaineretik pasa zen**



Dani Saldice eta Roberto Martil, Palmaren kontrako lehia. MAGNA.

Merezitako garaipena lortu zuten (5-2). Bihar Magnak Levante hartuko du Ostiralean garaipen garrantzitsua lortu zuen Magna Nafarroa Xotak etxean. Palma Futsal taldearen gaineretik pasa zen (5-2), ario konplikatuaurrean merezitako garaipena lortuta.

Carlitosek eta Palmako Sergiok bere atean sartutako golari esker, aldeko 2 eta 1arekin joan ziren atsedenaldira Magnakoak. Bigarren zatian Javi Eserverri kapitaina lesionatu egin zen. Hala ere, irurtzundarrek ez zuten etsi eta Marc Tolrak gol ikusgarria sartu zuen, liga osoko asteburuko golik ikusgarriena izendatu duten gola. Tolrak beste gol bat sartu zuen eta Carlitosek beste bat, eta Magnak 5-2 irabazita despeditu zen partida. "Taldeguztiaren garaipen potoloa izan da hau. Kapitainaren lesioagatik par-

tida konplikatua zaigu baina gutxiago jokatzeko duten jokalariek bikain erantzun dute" azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

**2.000 bazkide eta 2.400 ikusletako batez bestekoa**

Magnak handitzen jarraitzen du eta egun 2.000 bazkide ditu, zenbaki historikoa. Gainera, etxean jokaturako partidatan 2.400 ikusle hurbiltzen dira Anaitasunara, batez beste. Horretan zerikusi handia du prezio herrikoien aldeko apustuak. Denboraldi guztiko abonua 45 euroko prezioa du eta familiakoak 70 eurokoa. Bestalde, eguneko sarrerak 10 euro balio ditu eta kluba laguntzeko egunetakoak 15 euro.

Inter Movistar da lider (60 puntu), eta Magna Xota 7.a da (37 puntu). Larunbatean, 13:00etan, atzera ere Iruñeko Anaitasunaren jokatu du Magnak, sailkapenean 14.a den Levanteren kontra. Teledeportek zuzenean eskainiko du.

**Futbola**

**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

22. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 3 - ILUNBERRI 1**  
Azken hiru jardunaldiak jokatu gabe egon ondoren, garaipen garrantzitsua lortuta itzuli da Lagun Artea zelaietara. Igandean, Lakuntzan, 3-1 irabazi zioten Ilunberriri. Merezitako garaipena izan zen. Lehen zatian Anderrek Lagun Artea aurreratu zuen eta Pablok bikain gelditu zituen Ilunberrikoaren erasoan. Bigarren zatian jaun eta jabe izan zen Lagun eta Anderrek eta Unai sartutako golei esker, 3-1 gailendu zen.

Sailkapena >>

- 1. Mendi ..... 49 p
- 12. Lagun Artea ..... 22 p

Asteburuko jardunaldia

**BAZTAN - LAGUN ARTEA**  
(Larunbatean, 16:30ean, Elizondon)

**ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa**

22. JARDUNALDIA

**AURRERA 2 - ETXARRI ARANATZ 3**  
**LEZKAIRU 2 - ALTSASU 1**  
Leitzan 2-3 irabazi zion Aurrerari Etxarri liderrak. Zelaiaren egoeratik, partida luzatu ahala ia ezinezkoa izan zen bertan jokatzeko, eta Etxarri hobeto egokitu zen egoerari. Asierrek eta Kikok sartutako golekin 0 eta 2 irabaziz joan ziren etxarriarrak atsedenaldira. Bigarren zatian Aurrerak presionatu eta bina berdindu zuten, baina Xabatek garaipenaren gola sartu zuen. Altsasuren eta Lezkairuren arteko lehia oso estua izan zen, intentsitate handikoa. 9. minutuan Morenok Altsasu aurreratu zuen, baina bigarren zatian Lezkairuk Altsasu bere atean itxi zuen, penaltz berdintzea lortu zuen eta partida bukatzean zegoenean garaipenaren gola sartu zuen. Punturik gabe itzuli ziren altsasuarak.

Sailkapena >>

- 1. Etxarri Aranatz ..... 50 p
- 7. Altsasu ..... 32 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - BURLADES**  
(Igandean, 16:15ean, San Donaton)

**ALTSASU - ARROTXAPEA**  
(Igandean, 16:15ean, Dantzalekun)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA. 2. fasea**

11. JARDUNALDIA

**A MULTZOA: EGIARRETA 2 - B. MIKEL 1**

A multzoko sailkapena >>

- 1. Egiarreta ..... 28 p

Asteburuko jardunaldia

(Atzeratutako partidak jokatu dira)

**B MULTZOA: ZALDUA 3 - IZALSA 2**

B multzoko sailkapena >>

- 1. Maldartea ..... 21 p
- 2. Zaldua ..... 17 p

Asteburuko jardunaldia

**ROCA - ZALDUA** (larunbatean Unzuen)

**Areto futbola**

**Bunker, lider sendoa**

Bunker da Futsalsakana txapelketako liderra (30 puntu), Racing San Migel 2.a (23 p.) eta Arbizu 3.a (22 p.). Atzetik datoz besteak.

**13. jardunaldiko emaitzak**

Hijos de perla 2 - Iturmendi 8  
Auzomotojorik 5 - Racing San Migel 3  
Back Street Boys 7 - Arbizu harrobia 7  
Arbizu 2 - Bunker 3

**14. jardunaldia (larunbatean)**

- 15:00etan: Arbizu harrobia - Arbizu
- 16:00etan: Iturmendi - Auzomotojorik
- 17:00etan: Bunker - Hijos de perla
- 18:00etan: Racing San Migel - Back Street Boys

**Mendi txirrindularitza-BTT**

**Mikel Otxoa Pedalier talde berrian ariko da**

BTT edo mendi txirrindularitzak badu talde berria: Pedalier. Izen bereko dendak sustatu du taldea, baina taldea ez da zerotik hasten, Conor WRC taldetik baitator: Hain zuzen ere Pedalierrek akordioa lortu du Conor WRC bizikletak enpresarekin, eta honek talde berria sustatzen jarraituko du, Soluciones TDKA eta HIRUDEME enpresek batera eta Michelin eta X-Sauce etheen laguntza teknikoarekin.

Ondoko txirrindulariek osatzen dute talde berria: Conor WRC taldetik datozen Migel Sanzol, Daniel Aristu eta Mikel Otxoa izurdiagatarra; Daniel Armendariz eta Asier Juanbeltz, Diario de Navarra Openeko elite maila eta Euskadiko Openeko 23 urtez azpikoan lider izatetik datozenak; eta 23 urtez azpiko kategorian debutatuko duten Iosu Diaz eta Oier Belaskoain. Puntako taldea sortu dute eta Rural

Kutxa BTT Kopan, MTB Euskadiko Openean eta Diario de Navarra Openean buruan egotea da asmoa. Bestalde, Superprestigio Caja Rural MTB, Espainiako Openean eta puntako beste proba batzuetan lehia eman nahi dute. Seguros Bilbao Bio Racer taldeak Pedalier taldearen harrobia izaten jarraituko du.

**Valentzian**  
Asteburu honetan emango dio



hasiera Pedalierrek denboraldia-ri. Superprestigio Caja Rural MTB txapelketako lehen proba jokatu-ko da Valentziako Chelvan.

## Irristaketa

# Irristalari onenak bihar Olaztin

**Nafarroako 300 irristalari espero dira Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako Indoor probetako 4. topaketan. Bihar, 10:00etan, Olaztiko Erburua kiroldegian**

Otsailaren 7an Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako Indoor probak abiatu ziren. Hiru jardunaldi jokatu eta gero, laugarren jardunaldia Olaztira etorriko da. Bihar, larunbatean izanen da, goizeko 10:00etatik aurrera, Erburua kiroldegian. Sakanako Irristaketa Taldeak Olazti eta Altsasuko Udalen, Mankomunitatearen, Caja Navarra Fundazioaren, Copreci Altsasukoren eta Nafarroako Irristaketa

ta Federazioaren laguntza izan du proba antolatzeko.

Sakana Irristaketa Taldeko Juli Acebes entrenatzaileak azaldu digunez, ez da erraza halako probak Sakanara ekartzea, eta horregatik bertara gerturatzeko deia egin die sakandarrei. Goizeko 10:00etan Txikien Ligako probak abiatuko dira –miniak, aurrebenjaminak, benjaminak eta kimuak– eta 12:00etatik aurrera Helduen Ligakoak –haurrak, jubenilak, juniorrak eta seniorrak–. Sakana Irristaketa Taldekoak ere bertan lehiatuko dira.



Sakana Irristaketa Taldeko irristalari batzuk. Olaztiko biharko proban parte hartuko dute. UTZITAKOIA

## Aizkora

## Aizkolari izan nahi duzu?

**Sakanako Aizkora Eskola martxoan hasiko da eta izena ematea zabalik dago**

Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, beste behin Sakanako Aizkora Eskola antolatu du. Martxoan hasiko da eta izena ematen dutenek asteazkenetan (19:30etik 20:30era) eta larunbatetan (12:00etatik 13:00etara) aizkoraren nondik norakoak ikasteko aukera izanen dute Juanito Erdozia, Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza aizkolari etxarriarrek. Etxarri Aranatzen emango dituzte klaseak.

Eskolaren bitartez bi helburu nagusi bete nahi dira; batetik, aizkora bera bultzatzea eta, bestetik, Sakanan aizkolari harrobi on bat osatzea. Urteak dira Sakanan aizkora eskola antolatzen dela eta asko dira bertatik atera eta egun txapelketetan aritzen diren sakandarrak. Sakanako Aizkora Eskolak aukera polita ematen die aizkora gustuko dutenei eta aizkora hasteko beharrezkoak diren baliabideak -aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste -ez dituztenei. Izan ere, aizkora hastea zaila suertatzen zaie familian edo lagunartean aizkolariak ez dituztenei.

Printzipioz ikastaroa 10 urte eta 25 urte bitarteko neska-mutilei



Erdoziatarrek lanean.

dago zuzendua, baina tokia bada go nagusiagoek ere eman dezakete izena. Sakanako Aizkora Eskolak arrakasta handia du. Aurreko urteetan bete egin da aizkora eskolarako zegoen tokia –15 ikasle– eta aurten ere erantzun handia espero da.

### Izena emateko

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzura jo (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa) martxoaren 6a baino lehen. Prezioa: 55 euro.

**Unamuno**  
Denda

**ZATOZ GURE INSTALAZIO BERRIAK BISITATZERA!**

- **Makineria:** belarra moztekoak, desbrozadorak, motozerrak...

- **Lanerako arropa eta oinetakoak**

- Lorezaintza
- Orturako landare eta produktuak
- Abeltzaintzarako behar duzun guztia
- Baserriko kalitatezko elikagaiak
- Eskaintza bereziak

948 562 829 • Faxa: 948 563 002 • Ondarria industrialdea • ALTSASU

**FLORES S.L.**

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

Txistor ekologikoa

Urtubiar industrialdea - RHF. - Faxa: 948 460 499 - 416324

# kultura >>

## Ikasleendako euskarazko sormen sariketa martxan

**Txikienek ipuin bat ilustratzu parte hartu dezakete; helduagoek komikiak, olerkiak edo narrazio laburrak sor ditzakete**

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 2015eko Maria Markotegi sariak deitu ditu. Ikasle sakandarren artean euskarazko sormenari bide eman nahi dio lehiaketak. Ikasle adina kontuan izanik hiru mailatan banatu da lehiaketa. Lehen Hezkuntzako (LH) aurreneko bi ikasturteak batetik, hurrengo biak bestetik eta, gainontzekoak, azkenik.

### Ilustrazioak

LH 1. eta 2. mailetakok hurrek Juan Kruz Igarabideren *Arkakusoarena ipuina* ilustratu beharko dute. LHko 3. eta 4. mailetakok ikasleek, berriz, Patxi Zubizarretak egokitutako *Errementaria eta deabruak* ipuina ilustratu beharko dute. Bai maila bateko zein beste-koek edozein teknika erabili dezakete euren ilustrazioak sortzeko, beti ere, A4 tamainako orriak erabiliz. Bakarka egindako lanak berriz ez dira onartuko, ikasleko bana. Maila bakoitzean launa sari banatuko dira.

### Epea

Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Haiek Manken Lakuntzako egoitzan aurkezteko epea martxoaren 31n despedituko da, 15:00etan.

### Hiru adierazpide

LH 5. eta 6. mailetakok, DBHkoek, Batxilergokoek eta erdi mailako Heziketa Zikloetakok komikiak, poesiak edota narrazio laburrak aurkeztu ditzakete lehiaketara. Komikiak orrialde



bat eta bost arteko luzera izan beharko dute. Olerkiek 14 eta 40 artean. Narrazioen kasuan, LHkoek orri bat eta hiru arteko lanak aurkeztu ditzakete; DBHkoek bi eta bost artean eta gainontzeko mailetakok hiru eta

zortzi orrialde arteko luzerako lanak aurkeztu beharko dituzte. Maila guztietan gaia libre da. Jakina, lanek originalak eta aurrez saritu gabeak izan behar dute. 24 sari banatuko ditu Euskara Zerbitzuak.

## Saria, murritzketak eta auto-edizioa

**Jose Luis Asensiok 2013ko Iruñeko Udalaren egile-berriendako narrazio laburren saria irabazi ondoren, mikro-mezenazgo bidez argitaratuko du lan saritua, murritzketengatik udalak ez baitu eginen**

Jose Luis Asensiok esan digunez, "Iruñeko Udalak dirurik ez duelako" ez da sarituen lana jasotzen duen liburua argitaratu. Gauzak horrela, Asensiok auto-edizioaren bidea aukeratu eta berak bere liburua argitaratzea erabaki du. *Ixa ASAP!* saritutako narrazioarekin batera berak idatzitako beste hiru narrazioekin osatuko da liburua. Hura argitaratu ahal izateko etxarriarrak crowdfunding kanpaina martxan jarri du Verkami atariaren bidez (<http://vkm.is/euskarazkoipuin-bilduma>).

Etxarriarrak berak aitortu duenez, "zenbat liburu argitaratu ez dakit eta inbertsioa huts hutsean egitea arriskutsua da gaur egun. Horrexegatik, dirua baino garrantzitsuagoa oraindik, jendearen artean duen harrera jakitea da.

Inkesta moduan ere ikusi nahi dut proiektua, zenbat pertsoneri benetan interesgarri iruditzen zaien jakiteko". Etxarriarrak liburua argitaratu ahal izateko 600 euro eskuratu nahi ditu. 40 egun ditu horretarako. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



### Sarean

Bloga: <http://ixaasapipuinbilduma.blogspot.com.es/>  
Crowdfunding kanpaina: <http://www.verkami.com/locale/eu/projects/11053-euskarazko-ipuin-bilduma>

## bazterretik

### Juankar Mugartza

### Euskara ofiziala Nafarroa osoan

Gezurra badirudi ere, euskarak, galtzeko arriskuan dagoen altxor linguistikoak, babesa jaso beharrean, jipoi jasatzen du behin eta berriz. Robert Louis Stevensonek *Altxorren Uhartea* izeneko liburua idatzi zuen, eta nik behin baino gehiagotan Euskal Herria uharte bat bezala irudikatu izan dut: euskararen altxorra gordetzen du eta piraten maltzurkeriaren arrisku-pean bizi da beti.

Stevenson Edinburgokoa zen, eskoziarra, eta jakituria handikoa. Berak ingelesez idazten zuen arren, ongi ezagutzen zuen Eskoziako egotera linguistikoak, eskozieraz (Eskoziako gaelikoz) bazekielako -bere amak, Margaret Stevenson andreak, "Lou" edota "Smout" deitzen zion, hau da, "izokin txikia" eskozieraz-. Gaelikoa maite zuen, bere hizkuntza zelako, bere familiarena, bere herriarena. Ez zitzaiokeen inoiz ere bururatuko ingelesa gorapatzearen, eskoziara zapuztea edota heriotzaren atariraino eramatea, hemengo Mister Hyde askok egiten duten bezala.

Stevensonek ongi ezagutzen zituen munduan diren gizon eta emakume gezurti, faltsu, elezuri eta bi aurpegiko guztiak eta ez zituen bategarritasun. Itsusi gertatzen zitzaizkion. Hainerrespetagarriak ematen duten Jekyll Doktoeen bihotzean dagoena agerian utzi zuen. Nafarroan banaka batzuk ezagutzen ditugu. Nazkaren zirraren sentitzen dugugoitik behera, zerbait oso gaiztoa baitute haien begiradetan. Mister Hyde,

batzuetan, gorritz jantzitako emakume baten gorputzean ezkutatu da, beste batzuetan, berriz, gizon baten burmuin hutsean... eguz Nafarroako Presidente bilakatu da. Hyde andreak eta Hyde jaunak, euskara entzun bezain laster beren Jekyll Doktoeren atseginaren itxura galtzen dute eta euskara galbidera eramana nahi dute gauza guztiengainetik.

Duela egun gutxi, oraindik ihoten giroan geundelarik, Nafarroako Parlamentuak erabaki garrantzitsu bat hartu zuen Nafarroa osoan euskara ikasteko eskubidea bermatzeko. Urrats txiki bat izan da horrenbeste Mister Hyde jaunandreen kontra aritzeko. Akordio hau beren bihotzetan iltzatu zaien gezi beltz bat bezala sentitu dute euskararen kontrako amorratuek. Hain zuzen ere, Stevensonek *Gezi beltza* liburua idatzi zuen.

Samoatarrek beren hizkuntzan Tusitala deitu zioten Stevensoni "kontu kontaria" eta samoatarren alde altxatu zen alemanen menderakuntzaren aurka eta Honoluluko C. M. Hyde Doktoeren azpikoaren kontra. Ikas dezagun eskoziarrarengandik eta ez gaitzen konformatu akordio txiki batekin. Arrisku eta mehatxu guztiengainetik, nekez, baina beti aurrera egin du euskarak, itolarran egon arren, nasa hartzen jakin izan du egoerarik larrietan ere. Orain, euskara ikasteko eskubidea lortu dugu, hurrengo urratsa euskararen ofizialtasuna Nafarroako bazter guztietara hedatzea lortu behar dugu. Honela zainduko da betiko gure uharte honen altxorra.

**Mari Jose ileapaindegia**

Arbizu  
948 460 912 - 686 192 252

**bizi berrituta, bueltan!**

# Bi bertsolari txapelketan aurrera

**Eneko Lazkoz eta Oier Lakuntza martxoaren 15eko final-erdian ariko dira, Burlatan**

Lakuntzako igandeko final-laurdenetakosaiola despeditu ondoren jakin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan aurrera eginen duten 18 bertsolarien izen abizenak. Eneko Lazkoz Martine-

zek Lakuntzan bertan lortu zuen zuzeneko txartela. Berarekin batera aurrera egin du Oier Lakuntza Irigoienek. Urdiaindarra Iruñeko saioan lortutako bigarren postuarekin puntukako sailkapeneko buru izan da (246,5 puntu).

Puntukako sailkapen horretan 14. postuan bukatu du Josema Leitza Razkinek. Arbizarra final-

erdien atean gelditu da postu bategatik eta 2 puntu eskasengatik (230,5). Gutxiagatik ez du lortu, beraz, aurreko txapelketan lortutakoa. Bederatzi urte txapelketatik kanpo ibili ondoren lehiatzera bueltatu den Joseba Beltza Bengoetxeak 22. postuan bukatu du puntukako sailkapenean (223,5), final-erditik bederatzipuntura. +www.guaixe.eus



## Haize Berriak; entsegu berezia eta Mezenazgo Legearen aukeren azalpena

Igandean, 12:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Gonbidapenak eraikinean bertan jaso daitezke

Haize Berriak bandaren entsegu bat bertatik ikusteko aukera izanen da etzi. Musika-erriek euren lanean bat nola egiten duten ikustearrekin batera, ikusleek bestelako azalpenak ere jasoko dituzte. Nafarroako Gobernuaren Mezenazgo Legearen zigilua lortu du Sakanako bandak eta herritarrek eta enpresek kultur taldeak laguntzeagatik lor ditzaketen abantailak azaltzeko baliatuko du entsegua bandak.

## Rock klasikoaren bertsioen garaia

Bihar, 23:30ean, Olatzagutiko Clinker tabernan

Harvey Keitel eta El Sr Lobo bikoteak biharkoan kontzertu akustikoa eskainiko du Olatzagutian. Musika-erriek rockeko doinu klasikoaren bertsioak eskainiko ditu; haien artean Eric Clapton, David Bowie, The Beatles, Leño, Los Suaves...

## Metal doinuak gaztetxean

Bihar, 22:30ean, Altsasuko Gaztetxean Allowance eta Dentera

Emilio Boal (baxua eta ahotsa), Angel Diaz (gitarra eta ahotsa), Jabi Herrero (bateria eta ahotsa) eta Iñaki Otxoa (gitarra eta ahotsa) laukote urdiaindar-altsasurra, Dentera, bihar Altsasuko Gaztetxeke eszenatokira igoko da. Metal doinuak rock ahotsez lagunduta. Otxoak esan digunez, hiru diskoetako doinuekin eta bertsioekin batera lan berrirako sortu dituzten piezak ere eskainiko dituzte.

"Astero bitan elkartzeko gara entseatzera, gustura. Disko berrira prestatzen ari gara", esan digu Otxoak. Bizkaia aldean jotzen dute gehien bat: "duela bi aste Elorrion izan gara, Ermuan, Zaldibarren... Gainontzeko herrialdeetatik ez gaituzte deitzen". Etxean, duela bi urte Altsasuko Zumalakarregi plazan eta Txunkai auzoan jo zuten. Gaztetxean duela bost bat urte jo zuten azkeneko. Bihar Iruñeko Allowance death metal taldea izanen dute lagun.



## Zoila Nafarroako Antzerki Eskolan

Joan den urtean ikasturte akaberako proiektu gisa "arrakasta handiz" taularatu zen Nafarroako Antzerki Eskolan *Idiotas contemplandola nieve* antzezlan. Javier Perez Eguaras eta Fuensanta Onrubia zuzendariaren esanetara 18 paper jokatzeko dituzten sei aktore ariko dira taula gainean. Horien artean Zoila Berastegi arbizarra.

Zuzendariak diotenez, "egungo munduaren pultsuaren isla da obra. Aktoreek bere onetik ateratako pertsonen mundua islatzen dute; euren beharrak asetzen saiatzen diren eta maitasuna ahaztu duten pertsonak dira". Pertsonaien "auto-suntsiketa" joera, umorez emana dago. Azken batean, "halako mundu batean bizitzen segitu nahi den edo aldatzeko aukera dagoen galdetzen du obrak".

### Emanaldiak

Gaur, bihar eta etzi eta martxoaren 1ean eta 7an. Emanaldiak 20:00etan, larunbatetakoak salbu, 20:30ean direla. Aurretik ilbeltzaren 31n eta otsailaren 1, 6, 7 eta 8an eman zuten.

## Flamenko gaua Altsasun

Bihar 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean Juan Ramirez dantzaria eta Orai taldea ariko dira

Takoi-jotzeak, takoi-errepikak... Juan Ramirez maisu dantzaria bihar ariko da Altsasun. Oin perkusioa, hizkuntza. Dantzari autodidakta, itzal handiko izenak izan zituen lagun. Ramirez artista handien ondoan aritu da lanean eta Pastora Imperio sari nazionalaren jabe da. Maisu dantzariak musikari nafarrek osatutako Orai taldearen laguntza izanen du eszenatokian.

### Altsasuar bat ere

Josetxo Lumbreras bateria-joleak ere parte hartuko du biharko ikuskizunean. Orai taldearekin pieza bat joko du. Gainera, dantzariarekin buruzburu ariko da ere: Ramirez takoiekin, Lumbreras baketeekin. +www.guaixe.eus



## Mikel Urdangarin, bakarka

Igandean, 19:30ean, Irurtzungo kultur etxean

Hamazazpi urteko musika ibilbidea egin du musikari zorrotzarrak. Mikel Urdangarin, jendurrean, beti ibili da taldea lagunduta. Baina otsaitetik maiatzera bitarteko 21 kontzertuko biran bakar-bakarrik ariko da eszenatokian. Disko berrirako sortu dituen hainbat kantu aurkeztuko ditu jendurrean. Etxeko sukaldetan, bakardadean, sortutako kantuek bere horretan eman nahi ditu musikariak, gitarraren laguntza soilarekin. Kantu batzuk "bukatu gabe bezala" egonen dira, urte akaberan argitaratuko duen diskorako lantzen ari baita. Abesti zaharren moldaketa biluziak ere eskainiko ditu. +www.guaixe.eus

# kattuka

haur eskola

Aurre-matrikula:  
Matxoaren 2tik 17ra

Matrikula:  
Maiatzaren 21etik 29ra

Ateak zabalik eguna:  
Otsailak 24

kattuka.com

kattukahareskola@gmail.com \* Uhalde kalea z/g, Arbizu \* 948 567 009

Gardentasuna

Burkikuntza

Konfiantza

Errespetua

Elkarlana

Familia

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	astearte	asteazkena	osteguna
euria: 97%	euria: 50%	euria: 63%	euria: 20%	euria: 25%	euria: 68%	euria: 20%

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	13	-2	229.3
Etxarri A.	13.6	-3.9	179.5
Altsasu	14	-3.5	162.6
Aralar	4.4	-3.6	85.2
Urbasa	8	-5	159

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
5	13	20	27

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor  
SISTEMA  
BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Otsaileko

## bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katziporreta materiala.

2. 3. 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katziporreta materiala.

# >> 11

## galdera

Aitziber Irigoien

Korrika arduraduna Sakanan

Testua: Maialen Huarte Arano



## etxeak egokituko ditugu

igogailuak, arkitektoak, gremioak, eraikuntza enpresak, diru-laguntzak...

martxoaren 13an

eraikuntza+etxebitza gehigarria

zure publizitatea hemen: 948 564 275

**1. Martxoan izanen da Korrika. Nola doa prestaketa?**  
Ondo doala uste dut. Lehenengo aldia da hau egiten dudana, baina guztia ongi ateratzeko pausok behar den bezala ematen ari naizela uste dut.

**2. Zenbat sakandar ari zarete horretan lanean?**  
Nikoordinatzaile lanetan ari naiz, eta nire ardura da kilometroen salmenta ere, baina, euskaltegiko irakasleak hor daude edozertarako. Gainera haiek nik baino esperientzia gehiago daukate eta, Iruñeko jendearekin batera, laguntzen didate Korrikako antolaketan egin behar diren urratsetan aurrera egiten.

**3. Herritarrak inplikatzeko al dira halakoetan?**  
Bai, bai. Oso harrera ona dauka Korrikak eta herriz herri lanerako taldeak sortu dira. Aurreko Korriketatik ekintzak antolatzeko ohiturak jarraitzen du.

**4. Korrika aurretik ekitaldiak antolatzen dira herriz herri. Sakanan zeintzuk izanen dira?**  
Oraindik ez daude guztiak zehaztuta. Santa Agedak eta inauteriak bizi berri ditugu eta orain hasiko dira ekintzak zehazten. Gainera hilabete bat falta da oraindik, eta Korrikako ekintzak Sakanan Korrika pasatzen den aurreko asteburuan eta asteburu horretan bertan izango dira gehien bat. Haste-kodatorren larunbatean Irañetan txerri hilketaren inguruko festa egingo dute egun osoan eta afari batekin bukatuko dute. Lakuntzan martxoaren 21 eta 22an Korrikako asteburu kulturala egingo

dute eta hainbat ekintza antolatuko dituzte. Uharteko Arakilen martxoaren 28an bat-bateko futbito txapelketa antolatuko dute, Olaztin antzerki bat eta Sakanako herri gehienetan afariak eta Korrika Txikiak. Altsasun, martxoaren 26an, mintzodromoa antolatuko dugu eta jendeari bertan parte hartzeraz animatu.

**5. Zer da Korrika ekimena euskararentzat? Ze onura du?**  
Euskararekiko kontzientzia hartzen laguntzen digu bi urtetik behin. Daukagun altxor hau bizirik jarrai dezan laguntza behar duela gogorarazten digu.

**6. Beharrezkoak dira halakoak euskarari bultzada emateko?**  
Bai euskarari babesa emateko bai laguntza ekonomikoa lortzeko AEK-k bere lana egiten jarrai dezan, hau da, helduak alfabetatzen eta euskalduntzen jarrai dezaten. Gogoratu beharra daukagu 2012ko urritik AEK-k ez duela Nafarroako Gobernutik diru laguntzarik jaso.

**7. Sakanatik noiz igaroko da, zein herritatik?**  
Irurtzun 2:20 aldera sartuko da eta herri guztietatik igaroko da Urritzola, Etxeberritik eta Ergoienatik izan ezik. Eginoko bentan lekukoa Arabakoei pasako zaie 7:30 aldera. Dena dela, mugikorrekin Korrikako aplikazioa deskargatu daiteke eta bertan ikusi Korrika hasten denean, hau da, martxoaren 19an, nondik doan, eta horrela kalkulatu zenbat falta den bakoitzak korrika egin nahi duen tokira iristeko. Aplikazio honen bitartez Korrika Kultura-

lean antolatzen direnak ere ikusi daitezke.

**8. Aurten, Korrikan ateratzen den diruaren zati bat Altsasuko Itsasi euskaltegirako bideratuko da. Zer dela eta?**  
Euskaltegia obretan dago, handitzeko beharra zegoen eta laguntza ekonomikoa ezinbestekoa izan da horretarako.

**9. Zein da euskararen osasuna Altsasun? Eta, oro har, Sakanan nola ikusten duzu?**  
Orain dela 20 urte baino jende gehiagok daki euskaraz Altsasun eta orokorrean Sakanako herri guztietan. Arazoa zein da? Ez dela hitz egiten. Horri egin behar diogu aurre. Aurtengo Korrikaren mezuak dioen bezala euskaldun gaitzean, sinetsi dezagun gure gaitasunetan eta hitz egin dezagun euskaraz gizarteko esparru guztietan.

**10. Zergatik esanen zenuke jendeak Korrikan parte hartu beharko lukeela?**  
Benetan guztion parte-hartze gogotsu horrekin euskara gure ahotan jartzeko.

**11. Korrikako materiala non eskuratu daiteke Sakanan?**  
Korrikako arropa euskaltegian daukagu eta herriz herri eramango dugu antolatzen diren ekintzetarako. Eguraldi ona egiten duenean Altsasuko azokara ere aterako garen materialarekin. Gogoratunahi dut [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus)-en badagoe la aukera Korrikako arropa erosteko. Web horri horretan Korrikako informazio guztia dago, eta kanta deskargatzeko aukera ere bai.